

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 278/2024 Foru Agindua, maiatzaren 16koa. Onespena ematea 040 ereduari "Informazioa ematera behartutako beste plataforma eragile batzuen erregistroan alta emateko, aldaketak egiteko eta baja emateko errolda aitortpena" eta 238 ereduari "Plataforma eragileek informazioa emateko informazio aitortpena", bai eta haiek aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzea ere**

Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauak (hemendik aurrera DAC 7) fiskalitatearen arloko administrazioen arteko lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen du. Beraren helburu nagusiak honako hauek dira: Europar Batasunean informazioa trukatzeko eta lankidetzarako dagoen esparrua hobetzea eta administrazioen arteko lankidetzaren eremu berrietara zabaltzea, ekonomiaren digitalizazioaren erronkei heltzeko eta zerga administrazioei zergak hobeto eta eraginkortasun handiagoarekin biltzen laguntzeko. Horiek horrela, informatzeko betebeharrak berria ezartzen da plataforma digitaletako eragileei dagokienez.

Halaber, nazioartean informazioa trukatzeko mekanismoak indartzen ari delarik, kontuan eduki behar da Espainiak agintaritzaren eskudunen arteko alderdi anitzeko akordioa sinatu duela Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen esparruan (hemendik aurrera ELGA) plataforma digitalen bidez lortzen diren diru sarreraren gainera informazioa modu automatikoan trukatzeari buruz. Horrez gainera, xede bereko nazioarteko beste akordio batzuk ere sinatu ditu. Hori dela eta, alderdi anitzeko akordioa sinatu duten jurisdikzioei informazio trukea errazteko, ELGAN lankidetzako ekonomiaren eta noizbehinkako lanaren ekonomiaren eremuko plataforma eragileek saltzaileei buruzko informazioa emateko ereduak arau batzuk onetsi dira. Arau horiek funtsean bat datoz DAC 7an ezarritakoekin, batez ere haren eranskinean bildutako arreta egokiarekin jarduteko arauarekin eta prozedurekin.

Abenduaren 15eko 24/2023 Foru Arauaren bidez egiten da nazioarteko bi arauen transposizioa ordenamendu juridikora. Foru arau horrek Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra aldatzen du, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentaruaren transposizioan (zuzentarau horren bidez, Fiskalitate arloko Administrazio Lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen da, bai eta Pertsona Fisikoen Errentaren gainera Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua ere). Aipatutako 24/2023 Foru Arauak hogeita zazpigarren xedapen gehigarri berri bat sartzen du Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean, zeinak elkarrekiko laguntzaren esparruan behartuta dauden plataforma eragileek informazioa, arreta egoki eta erregistro betebeharren oinarriko jarraibideak ezartzen baititu.

Aipatutako hogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren erregelamendu garapena Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 27ko 3/2024 Foru Dekretuan dago, zeinaren bidez onespena ematen baitaio plataforma eragileek ematen duten informazioa modu automatikoan nahitaez trukatzeari arreta egokiarekin jarduteko arauak eta prozedurak garatzeari, eta zeinaren bidez aldatzen baitira urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, azaroaren 3ko 35/2020 Foru Dekretua, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua eta uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretua.

3/2024 Foru Dekretu horretan, arautzen dira plataforma eragileek erregistratzeko eta jarduera jakin batzuei buruzko informazioa emateko dituzten betebeharrak.

Hala, informazio betebeharrak berri bat ezartzen da, eta, horren arabera, "Informazioa ematera behartuta dauden plataforma eragileak" diren entitateek "Informazioa eman behar izatera lotuta dauden saltzaileak" egindako "Jarduera egokiaren" "Erreferentzia aldia"ri buruzko informazio zehatza eman behar diote zerga administrazioari.

Horregatik guztiagatik, 040 ereduaren onetsi behar da, zeinaren bidez errolda aitortzen egiten baita informazioa ematera behartutako beste plataforma eragile batzuen erregistroan alta emateko, aldaketak egiteko eta baja emateko. 040 ereduaren Foru Agindu honen I. eranskinean dago.

Era berean, beharrezkoa da onestea lehen aipatutako informazio aitortzen berria aurkezteko gaitu behar den aitortzen ereduaren, hau da, 238 ereduaren "Plataforma eragileek informazioa emateko informazio aitortzen"; kasuan kasuko erregistro diseinuekin batera, zeinaren bidez eman beharreko informazioa normalizatzen baita. Informazio aitortzenaren edukia eta erregistro diseinuak foru agindu honen II. eranskinean daude.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

### 1. artikulua. 040 ereduaren onestea

Onespena ematen zaio 040 ereduari "Informazioa ematera behartutako beste plataforma eragile batzuen erregistroan alta emateko, aldaketak egiteko eta baja emateko errolda aitortzen"; zeina foru agindu honen I. eranskin gisa ageri baita.

Eredu hori inprimaki betegarriaren egongo da eskuragarri, eta bide telematikoz aurkeztuko da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, 4. artikuluan ezarritako baldintzen eta prozeduraren arabera.

### 2. artikulua. 040 ereduaren aurkezteko betebeharrak

040 ereduaren "Informazioa ematera behartutako beste plataforma eragile batzuen erregistroan alta emateko, aldaketak egiteko eta baja emateko errolda aitortzen" aurkeztu beharko dute 111/2008 Foru Dekretuaren 27. artikuluko 3. apartatuan (111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasunen eta eskubideen berri emateko betebeharrak) aipatzen diren plataforma eragileek, zeinek informazioa emateko betebeharrak baitute.

### 3. artikulua. 040 ereduaren aurkezteko epealdia

Bat. Alta emateko aitortzen. Adierazpen hori "Plataforma eragile" gisa jarduten hasten denean aurkeztu beharko da, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 27ko 3/2024 Foru Dekretuaren eranskineko I. atalean zehaztutako baldintzetan. Foru dekretu horren bidez, onespena ematen zaio plataforma eragileek ematen duten informazioa modu automatikoki nahitaez trukatzeko arreta egokiarekin jarduteko arauak eta prozedurak garatzeari, eta haren bidez aldatzen dira urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, azaroaren 3ko 35/2020 Foru Dekretua, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua eta uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretua.

Bi. Aldaketa egiteko aitortzen. Aitortzen aurkezteko epealdia hilabetekoa izango da hura aurkeztu beharra eragiten duena gertatzen denetik.

Hiru. Baja emateko aitortzen. Aitortzen hau aurkezteko epealdia hilabetekoa izango da hurrengo 5. artikuluan jasotako baldintzak betetzen direnetik.

### 4. artikulua. 040 ereduaren aurkezteko baldintzak eta prozedura

040 ereduaren "Informazioa ematera behartutako beste plataforma eragile batzuen erregistroan alta emateko, aldaketak egiteko eta baja emateko errolda aitortzen" aurkezteko, baldintza orokor hauek bete beharko dira:

a) Plataforma eragileak identifikazio fiskaleko zenbakia izan beharko du.

b) [www.araba.eus](http://www.araba.eus) helbide elektronikoan dagoen inprimaki betegarriaren bidez aurkeztuko da, bide telematikoz, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, "Erregistro elektroniko komuna" zerbitzuaren bidez.

**5. artikulua. Plataforma eragile gisa jarduera aldatzeko edo uzteko adierazpena**

Bat. Plataforma eragileak Arabako Foru Aldundiari jakinaraziko dio alta erregistroan edo, hala badagokio, azken aldaketan emandako informazioan izandako edozein aldaketa.

Bi. Era berean, plataforma eragileak edozein motatako jarduera egiteari uzten badio "Plataforma eragile" gisa, edo jada ez badiu betetzen abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuko 27. artikulua 3. apartatuan ezarritako baldintzak (111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko betebeharra), inguruabar horietako edozein jakinaraziko dio Arabako Foru Aldundiari.

**6. artikulua. Onespena ematea 238 ereduari "Plataforma eragileek informazioa emateko informazio aitortpena"**

Onspena ematen zaio 238 ereduari. Urtero aurkeztu beharko dute aitortpena egitera behartuta daudenek, eta Arabako Foru Aldundira igorri beharko dute, XML fitxategiak web zerbitzu baten bidez bidalita, hurrengo 10. eta 11. artikuluetan jasotako prozedura, formatu eta diseinua-rekin, eta Foru Agindu honen II. eranskinean aipatzen den edukiarekin.

**7. artikulua. 238 ereduaren "Plataforma eragileek informazioa emateko informazio aitortpena" aurkezteko betebeharra dutenak**

238 ereduaren aurkezteko betebeharra dutenak 111/2008 Foru Dekretuaren 27. artikuluko 3. apartatuan mugatuta daude (111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko betebeharra).

**8. artikulua. 238 ereduaren "Plataforma eragileek informazioa emateko informazio aitortpena" informazio xedea**

Foru agindu honen II. eranskinean jasotako informazioa aitortu beharko da 238 ereduaren, bat etorritik 111/2008 Foru Dekretuaren 27. artikuluko 4. apartatuan jasotakoarekin (111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko betebeharra), "Informazioa ematera behartuta dauden plataforma eragileei" eta jarduera egoki bat egin duten "Informazioa eman behar izatera lotuta dauden saltzaileei" dagokienez.

Hala ere, 111/2008 Foru Dekretuaren 27. artikuluko 2. apartatuko bigarren paragrafoan (111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko betebeharra) aipatzen diren "Salbuetsitako plataforma eragileek" aurkeztutako aitortpenaren edukia, baldin eta frogatzen badute, legeria nazionalaren arabera, bere plataformaren enpresa ereduak ez daukala informazioa eman behar izatera lotuta dagoen saltzaileerik, plataforma aitortzailearen datuetara mugatuko da (aurkezpenaren gorputzaren datuei buruzko A apartatua), foru agindu honen II. eranskinean zehaztutakoetara, hain zuzen ere.

Halaber, 111/2008 Foru Dekretuaren 27. artikuluko 5. apartatuan (111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko betebeharra) aipatzen diren eta informazioa ematera behartuta dauden plataforma eragileek aurkeztutako aitortpenaren edukia plataforma aitortzailearen datuetara mugatuko da (aurkezpenaren gorputzaren datuei buruzko A apartatua), bai eta plataformaren izenean saltzaileen aitortpena egitea bere gain hartzen duen plataformaren datuetara ere (aurkezpenaren gorputzaren datuei buruzko B.1 atala), foru agindu honen II. eranskinean zehaztutakoetara, hain zuzen ere.

**9. artikulua. 238 eredua "Plataforma eragileek informazioa emateko informazio aitortzea" aurkezteko epealdia**

238 eredua urtero aurkeztu beharko da "Saltzailea" "Informazioa eman behar izatera lotuta dagoen saltzailetzat" jotzen den urte naturalaren urtearen ondoko urtarrilean.

**10. artikulua. 238 eredua "Plataforma eragileek informazioa emateko informazio aitortzea" aurkezteko baldintzak eta prozedura**

238 eredua aurkezteko, aurreko 6. artikuluan aipatzen diren fitxategiak erabiliko dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan kokatutako web zerbitzu baten bidez, [www.araba.eus](http://www.araba.eus) helbide elektronikoan, "Banakako aitortpenak aurkeztea" zerbitzuaren bidez.

**11. artikulua. Fitxategien formatua eta diseinua**

238 ereduaren aitortpenari dagozkion fitxategiak haien edukia zehazten duten eta foru agindu honen II. eranskinean agertzen diren erregistro eremuetara egokituko dira, eta haien formatu eta diseinua Arabako Foru Aldundiaren [www.araba.eus](http://www.araba.eus) helbide elektronikoan agertzen direnak izango dira.

**XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA**

238 eredua "Plataforma eragileek informazioa emateko informazio aitortzea" aurkezteko epea, 2023ko ekitaldirako.

238 ereduan ezarritakoaren arabera plataforma eragileek informazioa emateko duten betebeharrari buruzko lehen aitortzea foru agindu hau indarrean jarri eta hurrengo hilabetean aurkeztu beharko da, 2023ko ekitaldiari buruzko informazioari dagokionez.

**AZKEN XEDAPENA**

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta lehen aldiz aplikatuko da 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztu diren informazio aitortzetan, 2023ko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 16a

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta*


*Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**

## I. ERANSKINA

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava  www.araba.eus	<b>Informazioa ematera behartutako beste plataforma eragile batzuen erregistroan alta emateko, aldaketak egiteko eta baja emateko errolda aitortpena</b>	040
--	--	-----

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila  
Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

## 1. Alta ematearen edo aldaketa egitearen aitortpena

## Aurkezteko arrazoiak

Alta ematea erregistroan	Jardueraren hasiera data
Aldaketa	

## Identifikazio datuak

IFZ	Sozietatearen Izena

## Helbidea Espainiako lurraldean

Bide mota	Bide publikoaren izena	Zenbaki mota	Etxe zk.	Zenbakiaren kalifikazioa	Etxadia	Ataria	Eskailera	Solairua	Atea
Helbideari buruzko beste datu batzuk (adibidez: urbanizazioa, industrialdea, merkataritza zentroa...)				Herria (udalerrria ez bada)				Posta kod.	
Udalerrria		Probintzia							

## Harremanetarako datuak (helbide elektronikoa)

Helbide elektronikoko mota	Helbide elektronikoa

## Legezko ordezkariak Espainiako lurraldean

IFZ	Abizenak eta Izena edo Sozietatearen Izena

## Informazio gehigarria (ez-egoiliarren kasuan bakarrik)

## Egoitza herrialdearen identifikazioa

Egoitza herrialdea	Egoitza dagoen herrialdeko identifikazio fiskaleko zk.

## Egoitza dagoen herrialdeko helbidea

Helbidea		
Helbideari buruzko beste datu batzuk	Herria / Hiria	Posta kod.
Probintzia / Eskualdea / Estatua	Herrialdea	Herrialdearen kod.

## Egoitza dagoen herrialdeko ordezkaria

TIN (Tax identification Number)	Abizenak eta Izena edo Sozietatearen Izena	
Helbidea		
Helbideari buruzko beste datu batzuk	Herria / Hiria	Posta kod.
Probintzia / Eskualdea / Estatua	Herrialdea	Herrialdearen kod.

<b>Egoiliarra ez den pertsona edo erakundea, zeinaren mende baitago (establezimendu iraunkorra soilik)</b>			
Abizenak eta Izena edo Sozietatearen Izena			
Helbide elektronikoa mota		Helbide elektronikoa	
<b>2. Baja ematearen aitortpena</b>			
Aurkezteko arrazoiak		Baja ematea erregistroan	
<b>Identifikazio datuak</b>			
IFZ		Sozietatearen Izena	
<b>Baja ematearen data eta arrazoia</b>			
Adierazten du ez duela inolako jarduerarik egiten "plataforma eragile" gisa		Baja ematearen data	
Adierazten du 111/2008 Foru Dekretuaren 27.3 artikuluko baldintzak betetzeari utzi diola.		Baja ematearen data	

## II. ERANSKINA

### 238 eredua "Plataforma eragileek informazioa emateko informazio aitortpena".

Foru Agindu honetan xedatutakoa betetzeko Arabako Foru Aldundiari igortzen zaizkion mezu informatikoei eduki hau izan behar dute:

Aurkezpenaren goiburuko datuak:

- Ekitaldia.
- Aurkezpen mota.
- Aurkezpenaren identifikazio kodea.
- Aitortzailearen IFZ.
- Mezu mota.
- Harremanetarako datuak.
- Mezu motaren adierazlea: informazio berria, zuzenketak edo jakinarazi beharreko eragiketarik gabe.
- Datuen kalitatea. Aitortutako datu mota.

Aurkezpenaren gorputzaren datuak:

#### A. Plataforma eragile aitortzailea:

1. Egoitza herrialdea.
2. Identifikazio fiskaleko zenbakia.
3. Entitatearen identifikazio zenbakia.
4. BEZaren identifikazio zenbakia.
5. Izena edo sozietatearen izena.
6. Plataformaren izen komertziala.
7. Helbidea.
8. Aitorpenaren arrazoia.
9. Baldin eta plataformako beste eragile batek bere gain hartzen badu plataforma horren saltzaileen eragiketen aitortpena.
10. Plataforma eragile aitortzailearen erregistroaren erreferentzia (DocRefId).

B. Beste plataforma eragile batzuk edo beste jurisdikzio batean aitortzen duen plataforma eragile beraren kasua:

B.1 Saltzaileak plataforma eragile aitortzailearen edo plataforma eragile beraren izenean aitortzea bere gain hartzen duen plataforma eragilea, honako hau aitortzen duen beste jurisdikzioan:

1. Egoitza herrialdea.
2. Identifikazio fiskaleko zenbakia.
3. Izena edo sozietatearen izena.
4. Helbidea.
5. Bere gain hartzen duen plataforma eragilearen edo aitortpena egiten duen beste jurisdikzio bateko plataforma eragile beraren erregistroaren erreferentzia (DocRefId).

B.2 Plataforma eragileak, zeinen saltzaileen aitortpena bere gain hartzen baititu plataforma eragile aitortzaileak:

1. Egoitza herrialdea.
2. Identifikazio fiskaleko zenbakia.
3. Izena edo sozietatearen izena.
4. Helbidea.
5. Bere gain hartutako plataforma eragilearen erregistroaren erreferentzia (DocRefId).

C. Jakinarazi daitekeen saltzaile bakoitzaren erregistroak.

1. Identifikazio datuak.

1.1 Pertsona juridikoak diren saltzaileak:

1.1.1 Pertsona juridikoa den saltzailearen identifikazioa, modu estandarrean:

1.1.1.1. Egoitza herrialdea.

1.1.1.2 Identifikazio fiskaleko zenbakia.

1.1.1.3 Entitatearen identifikazio zenbakia.

1.1.1.4 BEZaren identifikazio zenbakia.

1.1.1.5 Sozietatearen izena.

1.1.1.6 Helbidea.

1.1.1.7 Finantza identifikazioa.

1.1.1.7.1 Kontu zenbakia.

1.1.1.7.2 Kontu zenbaki mota.

1.1.1.7.3 Kontuaren titularra.

1.1.1.7.4 Kontuaren titularra identifikatzeko informazio gehiago.

1.1.1.8 Establezimendu iraunkorrak:

1.1.1.8.1 Establezimendu iraunkorraren estatu kidea.

1.1.2 Pertsona juridikoa den saltzailearen identifikazioa, GVS moduan (GVS erabiltzeko onespena jaso bada soilik):

1.1.2.1 Sozietatearen izena (GVS).

1.1.2.2 Jurisdikzioa (GVS).

1.1.2.3 Erreferentzia (GVS).

1.1.2.4 Beste TIN batzuk (GVS).

1.1.2.5 Finantza identifikazioa:

1.1.2.5.1 Kontu zenbakia.

1.1.2.5.2 Kontu zenbaki mota.

1.1.2.5.3 Kontuaren titularra.

1.1.2.5.4 Kontuaren titularra identifikatzeko beste informazio bat, hau da, GVS (*Government Verification System*), identifikazio modu bat da TIN (IFZ) ez den kode berezi baten bidez egiten dena eta Gobernu baten informazio sistemak esleitu eta baimentzen duena.

1.2 Pertsona fisikoak diren saltzaileak:

1.2.1 Pertsona fisikoaren saltzailearen identifikazioa, modu estandarrean:

1.2.1.1 Egoitza herrialdea.

1.2.1.2 Identifikazio fiskaleko zenbakia.

1.2.1.3 BEZaren identifikazio zenbakia.

1.2.1.4 Izen-abizenak.

1.2.1.5 Helbidea.

1.2.1.6 Jaiotzari buruzko informazioa:

1.2.1.6.1 Jaioteguna.

1.2.1.6.2 Jaioterria.



1.2.1.7 Finantza identifikazioa:

- 1.2.1.7.1 Kontu zenbakia.
- 1.2.1.7.2 Kontu zenbaki mota.
- 1.2.1.7.3 Kontuaren titularra.
- 1.2.1.7.4 Kontuaren titularra identifikatzeko informazio gehiago.

1.2.2 Pertsona fisikoa den saltzailearen identifikazioa, GVS moduan (GVS erabiltzeko onespena jaso bada soilik):

- 1.2.2.1 Izena (GVS).
- 1.2.2.2 Jurisdikzioa (GVS).
- 1.2.2.3 Erreferentzia (GVS).
- 1.2.2.4 Beste TIN batzuk (GVS).
- 1.2.2.5 Finantza identifikazioa:

- 1.2.2.5.1 Kontu zenbakia.
- 1.2.2.5.2 Kontu zenbaki mota.
- 1.2.2.5.3 Kontuaren titularra.
- 1.2.2.5.4 Kontuaren titularra identifikatzeko informazio gehiago.

2.- Jarduera egokiei buruzko informazioa:

2.1 Ondasun higiezinaren erabileraren aldi baterako alokairua edo lagapena:

- 2.1.1 Helbidea.
- 2.1.2 Katastroko erreferentzia zenbakia.
- 2.1.3 Jabetza mota.
- 2.1.4 Deskribapena, jabetza mota "Beste bat" denean.
- 2.1.5 Errentamendu egunen kopurua.
- 2.1.6 Hiru hilean behingo kontraprestazioa, moneta adierazita.
- 2.1.7 Hiru hilean behingo jarduera kopurua.
- 2.1.8 Atxikitako edo kobratutako hiru hilean behingo komisioak, fidantzak, tarifak eta antzekobeste kopuru batzuk, moneta adierazita.
- 2.1.9 Hiru hilean behingo zergak, moneta adierazita.

2.2 Zerbitzu pertsonalak:

- 2.2.1 Hiru hilean behingo kontraprestazioa, moneta adierazita.
- 2.2.2 Hiru hilean behingo jarduera kopurua.
- 2.2.3 Atxikitako edo kobratutako hiru hilean behingo komisioak, fidantzak, tarifak eta antzeko beste kopuru batzuk, moneta adierazita.
- 2.2.4 Hiru hilean behingo zergak, moneta adierazita.

2.3 Ondasunak saltzea:

- 2.3.1 Hiru hilean behingo kontraprestazioa, moneta adierazita.
- 2.3.2 Hiru hilean behingo jarduera kopurua.
- 2.3.3 Atxikitako edo kobratutako hiru hilean behingo komisioak, fidantzak, tarifak eta antzeko beste kopuru batzuk, moneta adierazita.
- 2.3.4 Hiru hilean behingo zergak, moneta adierazita.

2.4 Garraibideen errentamendua:

2.4.1 Hiru hilean behingo kontraprestazioa, moneta adierazita.

2.4.2 Hiru hilean behingo jarduera kopurua.

2.4.3 Atxikitako edo kobratutako hiru hilean behingo komisioak, fidantzak, tarifak eta antzeko beste kopuru batzuk, moneta adierazita.

2.4.4 Hiru hilean behingo zergak, moneta adierazita.

3. Saltsailearen erregistroaren erreferentzia (DocRefld).